

**6 hilabeterekin, 6 gaixotasunetatik** babestuko duen **txerto bat** jarriko zaio bisitan:

- B Hepatitisaren, Difteriaren, Tetanosaren, Kukutxeztularen, Poliomielitisaren eta Haemophilus influenzae b-ren (Hib) aurkako txerto konbinatua.




## Gaixotasunen eta txertoen ondorioen alderaketa

| Gaixotasuna | Gaixotasunaren ondorioak | Txertoaren eraginkortasuna* | Ondorio kaltegarriak |
|---|---|---|---|
| **B Hepatitisa** | Gibeleko infekzioa. Ondoeza, goragalea, sabeleko mina, azala hori kolorekoa. Hepatitis kronikoa eragin dezake. Kasu kronikoen %25ek zirrosia edo minbizia garatzen dute. | %98,9 | Mina, gogortasuna, gorritasuna injekzioaren eremuan. Sukarra, negarra, suminkortasuna, gose-galera (%10). |
| **Difteria** | Arnasteko arazoak. Nerbio-sistemari, bihotzari edo giltzurrunei eragin diezaieke, paralisia. (Kasuen %6-10ean) heriotza. | %99,8 | |
| **Tetanosa** | Muskuluen espasmo minkorrak, muskuluen zurruntasuna, arnasteko zailtasuna, irensteko zailtasuna. (Kasuen %10ean) heriotza. | %100 | |
| **Kukutxeztula** | Eztulaldi paroxistikoa arnasteko zailtasunarekin. Kongestioa eta okadak. Pneumoniak, konbultsioak, entzefalopatiak (11.000 kasutik bat). Heriotza (bularreko haurren %0,4). | %100 | |
| **Poliomielitisa** | Sukarra, goragalea, okadak, pixkanakako paralisia (%1). Paralisi iraunkorra (ospitaleratutako kasuen %50-a). Heriotza (ospitaleratutako kasuen %5-a). | %99,3 | |
| ***Haemophilus influenzae* b** | Epiglotitisa, osteomielitisa, pneumonia, meningitisa, heriotza (meningitis kasuen %5). | %96,6 | |

* 3 dosirekin, antigorputzen maila azken dositik hilabetera

Osakidetza

# CALENDARIO VACUNAL INFANTIL DE EUSKADI 2016

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD






- **Hepatitis B**
- **Difteria**
- **Tétanos**
- **Tos ferina**
- **Poliomielitis**
- ***Haemophilus influenzae* b**